# BESTELAKO XEDAPENAK

## INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

## 3964

*EBAZPENA, 2016ko irailaren 1ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten baita urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan 2016ko ekitaldirako aurreikusitako diru-laguntzen deialdia. Dekretu horretan daude araututa ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak enpresei emateko baldintzak.*

Ikusirik Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2015eko abenduaren 16ko Aginduaren bitartez urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzen deialdia egin zela 2016ko ekitaldirako. Dekretuak ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen ditu.

Ikusirik 2016ko otsailaren 4an amaitu egin zela eskaerak aurkezteko epea, eta Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan 55 eskaera jaso ditugula prozedura arrunterako eta 39 eskaera prozesu errazturako, urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 4. artikuluan eta 2015eko abenduaren 16ko Aginduaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontuan harturik urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 16. artikuluaren arabera berariaz osatutako balorazio-epaimahaiak dagokion ebazpen-proposamena egin duela, aurrekontuaren mugekin bat. Proposamenean zehaztuta daude diru-laguntza eskuratu dezaketen egitasmoak, aipaturiko dekretua betetzeko xedez, bai eta diru-laguntzaren zenbatekoa, eta, halaber, ezetsitako eskaerak eta ezesteko arrazoiak ere.

Kontuan harturik Ingurumeneko sailburuordeak duela eskumena eman beharreko diru-laguntzen onuradunak eta zenbatekoak behin betiko zehazteko, aipatutako urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 16. artikuluaren arabera.

Hauek ikusirik: enpresei ingurumena babestera bideratutako inbertsioak egiteko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2015eko abenduaren 16ko Agindua, zeinaren bidez 2016ko ekitaldirako urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzen deialdia egiten baita; Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta, oro har, aplikatzekoa den gainerako araudia, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honetako I. eta III. eranskinetan jasotako enpresei diru-laguntzak ematea, bertan jasotzen diren proiektuetarako eta bertan adierazitako zenbatekoetan.

Aipatutako diru-laguntzak eskatutako inbertsioan diruz lagundu daitezkeen gastu garbien ehuneko zehatz bat dira.

Bigarrena.– Ebazpen honetako II. eta IV. eranskinetan adierazitako enpresei eskatu dituzten diru-laguntzak ezestea, bertan zehazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Diru-laguntza jaso ahal izateko, onuradunak diruz lagundutako inbertsioa gauzatu duela eta inbertsioaren kostua egiaztatu beharko ditu, agirien bidez.

Laugarrena.– Onuradunek urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 20. artikuluan onuradunentzat ezartzen diren gainerako betebeharrak ere bete beharko dituzte.

Bosgarrena.– Diru-laguntza programa hau Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin (EGEF) batera finantzatu ahal izango da, EAEko 2014-2020ko EGEF Programa Eragilearen barruan. Kasu horretan, onuradunak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Erregelamenduaren (EB) 2. atalaren 115. artikuluan aurreikusitako zerrenda publikoan agertuko dira, eta EGEFen bidezko erkidego-kofinantzaketa hedapen horretarako sortutako materialetan eta euskarrietan aipatu beharko da.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, diru-laguntzak emateko prozedura orotan egon behar duen publikotasun-printzipioa betetzeko.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazten den egunetik aurrera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluek xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 1a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IOSU MADARIAGA GARAMENDI.

# I. ERANSKINA

## PROZEDURA ARRUNTEAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK.

| Espediente-zenbakia | Eskatzailea | Proiektua | Diru-laguntza (eurotan) |
|---|---|---|---|
| 001-PROT-2016 | Furesa, S. Coop. | Xurgapena desmoldaketa - granaila - hondar-hozkailua. | 53.404,56 |
| 004-PROT-2016 | Fagor Ederlan, S. Coop. | Markuleteko galdategiko moldekatze berdeko hondarrak lehengoratzea eta berrerabiltzea. | 115.570,64 |
| 007-PROT-2016 | Afesa Medio Ambiente, S.A. | Mintz-moduluak dituen instalazioa jartzea, hondakin-gasetako sufre-hexafluoruroa (SF6) birziklatzeko. | 29.614,61 |
| 008-PROT-2016 | Munksjö Paper, S.A. | Lehen mailako isurketa hobetzea, ohe mugikorraren etapa biologikoaren bidez. | 150.000,00 |
| 009-PROT-2016 | Fagor Ederlan, S. Coop. | Hutseko lurrungailua Bergarako behe-presioko aluminio-instalazioan. | 51.456,30 |
| 010-PROT-2016 | Fagor Ederlan, S. Coop. | Hutseko lurrungailua Arrasateko behe-presioko aluminio-instalazioan. | 31.040,64 |
| 013-PROT-2016 | Ampo, S. Coop. | Filtro berriak soplete eta aire-arku bidezko atalean, partikulen isurketak murrizteko. | 32.969,60 |
| 016-PROT-2016 | Contenedores Escor Vitoria, S.L. | ESCORen hondakin industrial ez-arriskutsuak sailkatzeko eta birziklatzeko instalazioan errefusatutako materialen energia-aprobetxamendua egiteko bideragarritasunaren azterketa, Gasteizko Jundiz poligonoan. | 22.457,77 |
| 017-PROT-2016 | Vascontainer, S.A. | Metanoa oxidatzeko sistema ezartzea hondakin ez-arriskutsuen zabortegian. | 40.633,31 |
| 019-PROT-2016 | Vascontainer, S.A. | Hondakin ez-arriskutsuen zabortegiko metanoa oxidatzeko sistemaren eraginkortasuna eta bilakaerari buruzko azterketa. | 22.400,00 |
| 025-PROT-2016 | Ederfil Becker Koop. E. | Ederfil Beckerren hondakin gutxiago sortzea. | 32.910,66 |
| 027-PROT-2016 | Recuperaciones Industriales Cadarso, S.A. | Grafito-hautsak pelletetan birbalorizatzea eta berreskuratzea, altzairutegietan erabiltzeko. | 106.248,26 |
| 029-PROT-2016 | Gomavial Solutions, S.L. | Nahasgailu bateko inbertsioa. | 3.996,14 |
| 032-PROT-2016 | Befesa Zinc Aser, S.A.U. | Konposatu organiko lurrunkorren isuriak murriztea eta Waelz sistemaren efizientzia hobetzea. | 14.798,52 |
| 035-PROT-2016 | Electroquímica de Hernani, S.A | EHEReko ekoizpen-prozesuetan sortzen diren hondakin arriskutsuak murrizteko ekoizpen-prozesua aldatzea. | 94.619,69 |
| 037-PROT-2016 | Fundicione.s Fumbarri Durango, S.A. | Ingurumenaren arloko hobekuntza batean egindako inbertsioa, desmoldaketa-prozesuan hautsa murrizteko iragazki bat instalatuz. | 93.646,39 |
| 038-PROT-2016 | Khegal Aeronautica, S.L. | Briketak egiteko prentsa berri batean egindako inbertsioa, ingurumena babesteko. | 8.996,97 |
| 040-PROT-2016 | Fundación Jose Matia Calvo | Janaria alferrik galtzearen eta konpostaje bidez materia organikoa in situ tratatzearen inguruko auditoretza-azterketa, Matia fundazioaren hainbat zentrotan. | 3.044,02 |
| 043-PROT-2016 | Distribuidora internacional de metales, S.A. | Aluminioa bereizteko errota, birziklatu ahal izateko. | 24.992,44 |
| 044-PROT-2016 | Acería de Álava, S.A.U. | Euri-urak berreskuratzea zepen zonan. | 4.314,06 |
| 045-PROT-2016 | Acería de Álava, S.A.U. | Dekantazio-tangan sortzen diren olio-hondakinak biltzeko eta balorizatzeko hobekuntza gehigarri bat. | 6.713,98 |
| 047-PROT-2016 | Betsaide, S.A.L. | Betsaideren ekoizpen-prozesuan erabilitako arretarako hondarrak prestatzeko eta berreskuratzeko inbertsioak egitea instalazio batean. | 41.396,45 |
| 049-PROT-2016 | Sobrinos de Manuel Cámara, S.A. | Hautsa murriztea eta zuzentzea. | 83.130,36 |
| 050-PROT-2016 | Tubacex Tubos Inoxidables, S.A.U. | Hondakin-uretako olio- eta koipe-mailak murrizteko jarduketak. | 3.448,01 |
| 052-PROT-2016 | Bellota Herramientas, S.A. | Hondakin-urak lurruntzeko makina higigarri batean egindako inbertsioa. | 4.793,86 |
| 054-PROT-2016 | Acería de Álava, S.A.U. | Kanporako zarata gutxitzeko inbertsioa. | 25.764,22 |
| 055-PROT-2016 | Tubacex Tubos Inoxidables, S.A.U. | Txatarra-hondakinak murriztea, osagaien bizitza baliagarria luzatuz. | 23.560,87 |

| Espediente-zenbakia | Eskatzailea | Proiektua | Diru-laguntza (eurotan) |
|---|---|---|---|
| 056-PROT-2016 | Elmubas Iberica, S.L. | Pentsugintza-jarduerako isurien inpaktua murriztea. | 150.000,00 |
| 058-PROT-2016 | Depresa, S.A. | Piezak hutsean garbitu eta koipegabetzea, fase guztietan, AIII klaseko hidrokarburo ez kloratuen disolbatzaileekin (alkohol aldatuak). | 62.792,89 |
| 059-PROT-2016 | Ugarteburu, S.A. | Mekanizazioko txirbilak briketatzea. | 41.147,39 |
| 061-PROT-2016 | Ugarteburu, S.A. | Piezak hutsean garbitu eta koipegabetzea, fase guztietan, AIII klaseko hidrokarburo ez kloratuen disolbatzaileekin (alkohol aldatuak). | 43.277,01 |
| 064-PROT-2016 | Cementos Lemona, S.A. | NH3 neurgailu etengabea erostea, instalatzea, egiaztatzea, kalibratzea eta martxan jartzea, eta amoniakodun uraren kontsumoa eta NOx isuriak optimizatzea. | 4.914,56 |
| 065-PROT-2016 | K2 Glass Sistemas de Vidrio, S.L. | Beira-hautsaren partikulen bereizgailu bat instalatzea ekoizpen-prozesuan. | 13.536,42 |
| 066-PROT-2016 | Cespa Gestión de Residuos, S.A. | Saneamendu-kolektorearen oinarrizko proiektua, Larrabetzuko araztegiko lixibiatuak Fikako saneamendu-sarearekin elkartzeko. | 150.000,00 |

# II. ERANSKINA

## ROZEDURA ARRUNTEAN UKATUTAKOPPROIEKTUAK.

| Espediente-zenbakia | Eskatzailea | Proiektua | Arrazoia |
|---|---|---|---|
| 030-PROT-2016 | Egikor, S.A. | Lurruntze-sistema berri bat ezartzea. | Inbertsio garbia negatiboa (202/2015 Dekretua, 6.3 artikulua). |
| 039-PROT-2016 | Tromoga, S.L. | Lurrunketa-sistema bat ezartzea isuririk gabeko bibrazio bidezko prozesuetatik eratorritako urak tratatzeko. | Inbertsio garbia negatiboa (202/2015 Dekretua, 6.3 artikulua). |
| 062-PROT-2016 | Maquinas Pneumaticas Rotativas XXI, S.L. | Metalezko piezak konpresoreekin eta haizagailuekin garbitzeko sistema berria. | Inbertsio garbia negatiboa (202/2015 Dekretua, 6.3 artikulua). |
| 041-PROT-2016 | Nemak Spain, S.L. | Xurgatze- eta iragazte-sistema (mahuka-iragazkiak) urtze-dorre baterako. | Inbertsioak ez ditu gainditzen aplikazio-arauak (202/2015 Dekretua, 2 artikulua). |
| 053-PROT-2016 | Aiala Vidrio | Beira-labeetako keak lehorrean tratatzea, partikulen isurketak murrizteko. | Inbertsioak ez ditu gainditzen aplikazio-arauak (202/2015 Dekretua, 2 artikulua). |
| 002-PROT-2016 | Matriceria Deusto, S.L. | Argiztapena hobetzea; LED teknologia ezartzea. | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Agindua, 2015eko abenduaren 16koa, 7.2 artikulua). |
| 005-PROT-2016 | Fagor Ederlan, S. Coop | Etapa bikoitzeko iragazki bat instalatzea mekanizazio-instalazioetan (2. fasea). | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Agindua, 2015eko abenduaren 16koa, 7.2 artikulua). |
| 006-PROT-2016 | Fagor Ederlan, S. Coop | Iragazki hezeen ordez iragazki mekanikoak ipintzea transmisio-instalazioko bi zelulatan. | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Agindua, 2015eko abenduaren 16koa, 7.2 artikulua.) |
| 011-PROT-2016 | Indumetal Recycling, S.A. | Iragazki lehorren ordez, mahuka-iragazkiak ipintzea. | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Agindua, 2015eko abenduaren 16koa, 7.2 artikulua). |
| 012-PROT-2016 | Ampo, S. Coop | Hondar-lanetako bi filtro ordezkatzea partikulen isurketak murrizteko. | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Agindua, 2015eko abenduaren 16koa, 7.2 artikulua). |
| 018-PROT-2016 | Nemak Spain, S.L. | Injekzio-makina bateko xurgatze- eta iragazte-sistema (137. makina-makina berria). | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Agindua, 2015eko abenduaren 16koa, 7.2 artikulua). |
| 020-PROT-2016 | Maquinaria Geka, S.A. | Soldadurako keak biltzeko eta iragazteko sistema, Geka SAren makinerian. | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Agindua, 2015eko abenduaren 16koa, 7.2 artikulua). |
| 033-PROT-2016 | Befesa Zinc Aser, S.A.U. | Zehaztugabeko isuri/partikulen ihes-emisioak murriztea, hondakin arriskutsuak deskargatu eta garraiatzeko sistema automatiko bat integratuz. | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Agindua, 2015eko abenduaren 16koa, 7.2 artikulua). |
| 034-PROT-2016 | Befesa Zinc Aser, S.A.U. | Partikulen isurketak murriztea eta hondakin arriskutsuak biltegiratzeko eta birziklatzeko ahalmena handitzea Waelz prozesuaren bidez. | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Agindua, 2015eko abenduaren 16koa, 7.2 artikulua). |
| 036-PROT-2016 | Nemak Spain, S.L. | Injekzio-makina baten xurgatze- eta iragazte-sistema (138. makina-makina berria). | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Agindua, 2015eko abenduaren 16koa, 7.2 artikulua). |
| 042-PROT-2016 | Marino Martinez de Luco Mar-Mar, S.L. | Kontserba-fabrikako isurien inpaktua murriztea. | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Agindua, 2015eko abenduaren 16koa, 7.2 artikulua). |
| 046-PROT-2016 | Acería de Álava, S.A.U. | Jarduketak zepen biltegian, partikula txikien immisio-maila txikitzeko. | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Agindua, 2015eko abenduaren 16koa, 7.2 artikulua). |
| 048-PROT-2016 | Acería de Álava, S.A.U. | Kartoi eta plastikozko hondakinen balak prentsatzeko makina. | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Agindua, 2015eko abenduaren 16koa, 7.2 artikulua). |
| 051-PROT-2016 | Tubacex Tubos Inoxidables, S.A.U. | Desugerketan sortutako gasak murrizteko gasak garbitzeko sistema hobetzea. | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Agindua, 2015eko abenduaren 16koa, 7.2 artikulua). |

| Espediente-zenbakia | Eskatzailea | Proiektua | Arrazoia |
|---|---|---|---|
| 060-PROT-2016 | Ugarteburu, S.A. | Olio-lainoak erauzteko eta iragazteko ekipoa. | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Agindua, 2015eko abenduaren 16koa, 7.2 artikulua). |
| 026-PROT-2016 | Mccgraphics, S. Coop. | 2016KO Horizontea. Erosketa-prozesua optimizatzea, material osagarrien eta kontsumigarrien ontziak egokituta, hondakin arriskutsu gutxiago sortzeko. | Ez du gutxieneko zenbatekoa lortu (Agindua, 2015eko abenduaren 16koa, 8.2 artikulua). |

III. ERANSKINA

PROZEDURA ERRAZTUAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK

| Espediente-zenbakia | Eskatzailea | Proiektua | Diru-laguntza (eurotan) |
|---|---|---|---|
| 004-PROTS-2016 | Fagor Ederlan, S. Coop. | Siderurgia-hondarrak balorizatzeko eta birziklatzeko instalazio berriarentzako ekipamenduan inbertitzea. | 60.000,00 |
| 008-PROTS-2016 | Fagor Ederlan, S. Coop. | Hautsa biltzea Eskoriatzako galdategiko xurgapenetan. | 24.000,00 |
| 009-PROTS-2016 | Fagor Ederlan, S. Coop. | Usurbilgo galdategiko instalazioak egokitzea, Markuleteko hondarren aprobetxamendurako. | 17.118,80 |
| 019-PROTS-2016 | Ampo, S. Coop. | Hautsak segregatzeko sistema berria granailatzeko eta desmoldekatzeko makinetan. | 12.000,00 |
| 037-PROTS-2016 | Betsaide, S.A.L. | Moldekatze berdeko hondarrak eta hautsak egokitzeko instalazio bat egiteko inbertsioak egitea, gero hirugarrenek horiek birziklatu eta ekoizpen-prozesuan berriz txertatzeko aukera izan dezaten. | 55.701,12 |
| 023-PROTS-2016 | Ecofibras Aranguren, S.L. | Zuntz artifizialen isuriak murriztea, atal xeheen berreskuragailuarekin. | 51.156,00 |
| 038-PROTS-2016 | Ecofibras Aranguren, S.L. | Papergintzako hondakinak lehortzea. | 22.716,00 |
| 011-PROTS-2016 | Hondakinno, S.L. | Euskadiko kalitate handiko industria ondoko hondakin plastikoak berreskuratzeko mapaketa eta estrategia. | 9.450,00 |
| 022-PROTS-2016 | San José López, S.A.U. | «Kautxu-hondakinen inpaktua nola murriztu» izeneko ingurumen-ikerketa egitea. | 7.200,00 |
| 025-PROTS-2016 | Placisa, S.L. | «Plastiko-hondakinen inpaktua nola murriztu» izeneko ikerketa egitea. | 8.400,00 |
| 026-PROTS-2016 | Hondakinno, S.L. | Lehengai berriak automobiletako plastiko-hondakinak eta zuntz plastikoen hondakinak erabilita. | 8.400,00 |
| 028-PROTS-2016 | Talleres Bidegain, S.A. | Nola murriztu plastiko-hondakinen inpaktua. | 8.400,00 |
| 020-PROTS-2016 | Konfekoop-Confederación de Cooperativas de Euskadi | Euskadiko kooperatiben EMAS erregistroa sustatzea. | 5.000,00 |
| 001-PROTS-2016 | Zubelzu, S.L. | EMAS ingurumen-sistema bat diseinatzea eta instalatzea Zubelzu SLn. | 4.175,00 |
| 015-PROTS-2016 | Transportes Pesa, S.A. | Pesa garraioen Martuteneko instalazioaren ziurtagiria berritzea, EEko 1221/2009 (EMAS III) erregelamenduaren arabera. | 830,00 |
| 035-PROTS-2016 | Estudios y obras Rekalde, S.L. | EMAS III ingurumen-adierazpena (ingurumen-memoria). | 5.750,00 |
| 039-PROTS-2016 | Autobuses Cuadra, S.A. | EMAS III ingurumen-kudeaketarako sistema ezartzeko aholkularitza teknikoa. | 3.000,00 |
| 014-PROTS-2016 | Transportes Pes, S.A. | Pesa garraioen Arrasateko instalazioaren ziurtagiria berritzea, EEko 1221/2009 (EMAS III) erregelamenduaren arabera. | 830,00 |
| 017-PROTS-2016 | Gomavial Solutions, S.L. | EMAS berritzea. | 525,00 |
| 013-PROTS-2016 | Mónica Martinez de Musitu (Estudio MSTudio) | Ekodiseinuari buruzko ISO 14006-2011 araua ezartzea eta egiaztatzea. | 4.000,00 |
| 033-PROTS-2016 | Arruabarrena Arkitektura, S.L.P. | ISO 14006 Ekodiseinuaren ezarpena. | 4.000,00 |
| 034-PROTS-2016 | Astazaldi Ark, S.P.L. | ISO 14006 Ekodiseiuu arauaren ezarpena. | 4.000,00 |
| 010-PROTS-2016 | A&B Laboratorios de Biotecnología, S.A.U. | Ekoetiketa lortzea bost produktu garbigarri kontzentraturentzat. | 1.237,50 |
| 012-PROTS-2016 | Garlan Sociedad Cooperativa | Sektoreko produktuaren ingurumen-adierazpen bat egitea eta egiaztatzea Araban ekoitzitako malta-garagarrarentzat. | 4.000,00 |
| 024-PROTS-2016 | Zuhaizki, S.L. | Etiketa ekologikoen ISO 14020 ezartzea. | 4.000,00 |
| 027-PROTS-2016 | Asfaltia, S.L. | Produktuaren ingurumen-adierazpena (III. motako ekoetiketa) egin eta egiaztatzea. | 4.000,00 |

| Espediente-zenbakia | Eskatzailea | Proiektua | Diru-laguntza (eurotan) |
|---|---|---|---|
| 002-PROTS-2016 | Comercial de Limp. Villar, S.A. | Karbono-aztarnaren txostena. | 1.075,00 |
| 005-PROTS-2016 | Gruas y Polipastos Fas | FAS enpresaren garabi eta polipastoen karbono-aztarna kalkulatzea. | 1.800,00 |
| 007-PROTS-2016 | Impact Acoustic System, S.L. | Karbonoaren bizi-zikloaren eta aztarnaren ikerketa eta EPD ziurtagiria. | 2.540,00 |
| 016-PROTS-2016 | Montajes Eléctricos San Ignacio, S.L. | Karbono-aztarna kalkulatzea. | 1.900,00 |
| 018-PROTS-2016 | Construcciones y promociones Balzola, S.A. | Karbono urriko ekonomiarantz Balzolan. | 2.850,00 |
| 040-PROTS-2016 | Cuadra Bidean, S.L. | Karbono-aztarna kudeatzeko ISO 14067 sistema ezartzea. | 2.520,00 |
| 032-PROTS-2016 | Artea Ambiental, Construcción y energía, S.L. | Gidaliburuaren araberako hondakinen II. mailako kudeaketa-plana, Bilboko Gimnasio kaleko 2. Zenbakian. | 2.000,00 |
| 036-PROTS-2016 | Estudios y obras Rekalde, S.L. | BI-131 errepidearen ezpondak eusteko obraren hondakin-plana egitea. | 2.000,00 |
| 031-PROTS-2016 | Construcciones Gerrikabeitia, S.A. | Leioako (Bizkaia) Kandelazubieta kaleko 43. zenbakiaren lurzoruaren kalitatearen adierazpena. | 6.834,98 |

## IV. ERANSKINA

## PROZEDURA ERRAZTUAN UKATUTAKO PROIEKTUAK

| Espediente-zenbakia | Eskatzailea | Proiektua | Arrazoia |
|---|---|---|---|
| 006-PROTS-2016 | Agrupación de Compañías Eléctricas | Agrupación de Compañías Eléctricas SAL taldearen karbono-aztarna kalkulatzea. | Dokumentazioa falta du (2015eko abenduaren 16ko Agindua, 3. artikulua). |
| 030-PROTS-2016 | Contenedores Escor Vitoria, S.L. | ESCOR Ingurumen Kudeaketarako eta Ikuskaritzarako Europako Sisteman (EMAS) erregistratzea. Sistema eta ziurtagiria ezartzea. | Ez ditu erakunde onuradunen eskakizunak betetzen (202/2015 Dekretua, 3. artikulua). |
| 021-PROTS-2016 | Inteman, S.A. | EMAS berritzea. | Inbertsioak ez ditu gainditzen aplikazio-arauak (2015eko abenduaren 16ko Agindua, 4. artikulua). |
| 003-PROTS-2016 | Flanker Mobiliario SA | Lurzoruaren kalitatea ikertzea. | Ez da diru-laguntzaren xedea (2015eko abenduaren 16ko Agindua, 5. artikulua). |